Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko abenduaren 13a, asteazkena — 236 — Miércoles, a 13 de diciembre de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatza Plenoak, 2017ko irailaren 26an eginiko bilkuran, hasiera batean onartu zuen «Eguneko Arreta Zerbitzua»ren arautegia.

Hasierako onarpena horren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2017ko urriaren 11ean, eta hala jendaurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 lanegunerako. Jendaurreko epea amaitu da eta ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan xedaturikoarekin bat, egun horretatik aurrera hasierako onarpen erabakia behin betiko onartutzat jo daiteke eta, horren ondorioz, orain akordioaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu behar da.

Ados ez dagoenak bi hilabete ditu errekurtsoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean. Esandako epea argitalpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasiko da.

Usurbile, 2017ko abenduaren 5a.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (8427)

### EGUNEKO ARRETA ZERBITZUAREN ARAUTEGIA

1. *Xedea.*

Araudi honen xedea, Usurbilgo Udalerrian, eskaintzen den eguneko arreta deituriko zerbitzuan parte hartu eta sarbiderako prozedura arautzea da. Zerbitzu hau Usurbilgo Udalak zuzenean kudeatuko duena.

2. *Arau-erreferentziak.*

* Gizarte zerbitzuetako legea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bermatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak lortzea eskubide unibertsala eta subjektiboa dela, eta eskubide hori betetzea erreklamatu ahal izango dute, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Lege horrek ezartzen duen epea amaitzen denean (2016-12-25), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten pertsona guztiek.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Eguneko Arretako Zerbitzua sartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.7 artikulua), eta ezartzen du udalen gizarte zerbitzuei dagokiela zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, horrela dio:

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Anuncio*

El Pleno Municipal, en sesión celebrada el 26 de septiembre de 2017, acordó aprobar inicialmente el «Reglamento de Atención diurna».

El 11 de octubre de 2017 se publicó en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa anuncio de la citada aprobación inicial, abriéndose el plazo de información pública por plazo de treinta días hábiles. No consta que dentro de dicho plazo se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, a partir de esa fecha puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro del acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses. Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

Usurbil, a 5 de diciembre de 2017.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (8427)

### REGLAMENTO DEL SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA

1. *Objeto.*

El objeto de este reglamento es regular la participación y el acceso al servicio de atención diurna que se ofrece en el municipio de Usurbil. El servicio estará gestionado directamente por el Ayuntamiento de Usurbil.

2. *Referencias normativas.*

* Ley de Servicios Sociales.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, garantiza que el acceso a las prestaciones y servicios de la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales es un derecho universal y subjetivo, que podrá ser reclamado en vía administrativa o jurisdiccional por todas aquellas personas que cumplan los requisitos generales y específicos para acceder a cada uno de los servicios y prestaciones económicas del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, una vez finalice el plazo establecido (25-12-2016) por la citada Ley para universalizar el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, incluye el servicio de atención diurna en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, como servicio de atención primaria (artículo 22.1.7), y establece que corresponde a los servicios sociales municipales la prestación y cumplimiento de esos servicios.

Asimismo, el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, establece lo siguiente:

EK\CV GAO-I-2017-08427

— 5. artikuluan: Udalek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluan zehaztutako lehen mailako arreta-zerbitzu guztiak emateko, telelaguntza zerbitzua izan ezik.

— 32. artikuluan laguntzen definizioa dator: pertsonen eskura jartzen diren baliabide formalak (zerbitzuak eta prestazioak) eta informalak (sare soziofamiliarrekoak) haien funtzionamendu indibiduala, garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko, baita haien komunitate barruan partaidetza aktiboa, bizimodu independentea eta autonomia izan dezaten sustatzeko ere.

— I. eranskinean, 1.7 fitxan, eguneko arretako zerbitzuak buruzkoan, zerbitzu motak definitzean, horrela agertzen da: zerbitzu hau aldi batean edo modu iraunkorrean erabiltzeko da eta mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoei (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) arreta ematen die.

Usurbilgo Udalak adinekoen eguneko arreta zerbitzua martxan jartzeko beharrezkoa du zerbitzu horrek izango duen gestio eredua eta funtzionatzeko modua martxan jarri aurretik onartzea. Udal eskumeneko gizarte-zerbitzuen antolakuntzarako eskubide hori 12/2008ko 42.1 artikuluak eta 185/2015eko dekretuko 14. artikuluak ematen dio.

Ondorioz eta Toki Araubidearen oinarriei buruzko 7/1985 22.2 artikuluan jasotakoaren arabera, Usurbilgo Udal plenoak eguneko arretako arautegi hau onartzen du.

3. *Eguneko arretaren definizioa.*

185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan a) udal-eskumeneko zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoak Atalean Eguneko arreta definitzerakoari jarraituz:

Zerbitzu hauek pertsonen eskura egunean zehar erabil dezaketen gailu (zerbitzu) bat jartzen dute pertsonaren eskura. Gailu horren bitartez, pertsona horiei arreta emateko premia espezifikoekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie.

Adinekoek mendekotasun adierazleak dituzten horretan, egoera zaurgarri eta ahuldade egoera edo adierazleak agertzen dira. Hori horrela,egoera horretan aurkitzen direnei harrera guneak eskaintzeko beharrari erantzun nahi zaio.

Inkonpatibilidadeak.

— Eguneko zentroarekin.

— Egoitzarekin.

4. *Helburuak.*

Mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamendu-egoerak konpentsatuz, behar izanez gero.

Helburu Zehatzak:

— Adinekoei harremanak eta gizarte-ekintzak garatzeko marko egokia eskaintzea.

— Adinekoa familia eta bere testuinguruan bertakotua mantentzea.

— Bere gaitasunen arabera norberaren independentziari ahalik eta gehien eutsi edo/eta ahalik eta gehien berreskuratzea.

— Gaitasun kognitiboen galera atzeratzea estimulatze teknikak erabiliz.

— Talde partaidetza sentimendua landu.

— Sozializazioa bultzatu elkarren arteko komunikazioa landuz.

— Artículo 5: Los ayuntamientos serán competentes para la provisión de todos los servicios de atención primaria definidos en el artículo 22 de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales, salvo el servicio de teleasistencia.

— El artículo 32 recoge la definición de los apoyos: los recursos formales (servicios y prestaciones) e informales (de la red sociofamiliar) que se ponen a disposición de las personas a fin de mejorar su funcionamiento individual, su desarrollo y su calidad de vida, así como promover su participación activa, vida independiente y autonomía en el seno de la comunidad.

— En el anexo I, en la ficha 1.7 de servicios de atención diurna, al definir los tipos de servicios, se indica lo siguiente: es un servicio de uso temporal o permanente, que ofrece atención a personas mayores en riesgo o situación de dependencia (Grado I, que hayan obtenido una puntuación en el BVD de entre 25 y 39).

El Ayuntamiento de Usurbil, para poner en marcha el servicio de atención diurna, necesita aprobar previamente el modelo de gestión y forma de funcionamiento de dicho servicio. El derecho para poder organizar los servicios sociales de competencia municipal se lo otorgan el artículo 42.1 de la Ley 12/2008 y el artículo 14 del Decreto 185/2015.

Por lo tanto, de conformidad con lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, el Pleno Municipal de Usurbil aprueba el reglamento del servicio de atención diurna.

3. *Definición de la atención diurna.*

Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. En el apartado a) servicios y prestaciones o ayudas económicas de competencia municipal, se define el servicio de atención diurna:

Estos servicios ponen a disposición de las personas un dispositivo o servicio al que acudir durante el día, en el que se les ofrece un apoyo de baja intensidad ligado a sus necesidades específicas de atención.

Cuando las personas mayores presentan indicadores de dependencia, también se aprecian indicadores o situaciones de vulnerabilidad y debilidad. Por ello, se quiere dar respuesta a la necesidad de ofrecer espacios de acogida a las personas que se encuentran en esa situación.

Incompatibilidades.

— Con centros de día.

— Con residencias.

4. *Objetivos.*

Contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas mayores en riesgo o situación de dependencia (Grado I, con una puntuación en el BVD de entre 25 y 39), a su permanencia en su entorno de vida habitual y su socialización, compensando en su caso situaciones de aislamiento.

Objetivos Específicos:

— Ofrecer a las personas mayores un marco adecuado para desarrollar las relaciones y las actividades sociales.

— Mantener a la persona mayor en su entorno familiar y social.

— Mantener o intentar recuperar en la medida de los posible la independencia personal en función de las capacidades de cada persona.

— Retrasar la pérdida de las capacidades cognitivas utilizando técnicas de estimulación.

— Trabajar el sentimiento de pertenencia al grupo.

— Fomentar la socialización, trabajando la comunicación mutua.

EK\CV GAO-I-2017-08427

— Isolamenduak suposa ditzaketen ondorioak ekidin.

— Depresio, antsietate sintomak prebenitzea.

— Gaurkotasuna eta errealitatearekin lotura areagotu.

— Aisialdia modu positiboan bizitzea eta indartzea.

— Ariketa fisikoa eta osasunaren arteko lotura landu.

— Arreta eta memoria sendotzea.

— Komunikazioa areagotzea eta iritzia ematea indartzea.

— Sormena areagotzea ekintza anitzen bitartez.

— Herriko ekintza komunitarioetan eragile aktibo bilakatzea.

— Herriko ekintza komunitarioetan parte hartzea.

— Adinartekoen artean harremanak areagotzea.

* Zeharkako helburu zehatzak.

Familiarentzat.

Araudi honetan aipatzen diren pertsonak bere ingurunean mantentzen dituzten familiei laguntza soziala eta asistentziala eskaintzea.

*5. Hartzaileak.*

— Hartzaileak mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden 65 urtetik gorako adinekoak dira (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa dutenak).

— Usurbilen erroldatuak.

— Pertsonak duen arreta pertsonalizatutako planak eguneko arreta bezalako zerbitzuak dituen beharrei erantzuten diela ikusten denean, gizarte-zerbitzuen onespenarekin.

Salbuespen egoerak.

— Mendetasunik aitortuta ez duten, ahultasun egoeran, egoera zaurgarrian edo bakardade egoeran dauden pertsonak.

— Usurbilgo Udaleko gizarte-zerbitzuak aztertu eta baloratu ostean erabakitzen dituen bestelako salbuespenak.

*6. Zerbitzua jasotzeko baldintzak.*

Aurreko atalean jasotako administrazioko baldintzaz gain (mendetasun I gradua, 65 urte, erroldatua), premiazko hauek kontuan hartuko dira:

— Kasu bakoitzean bidezkoa den zerbitzu-modalitatearen bidez erantzuten zaien premien estaldurarako intentsitate txikiko babesa behar izatea.

— Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.

— Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetza normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.

— Zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea.

*7. Zerbitzuaren eskaintza. Prestazioa eta ezaugarriak.*

Usurbilgo Udalak zerbitzu publiko hau, gizarte zerbitzuetako legeak 12/2008ko legeak eta 185/2015 Dekretuak, jasotakoaren arabera eskainiko du zerbitzua.

— Zerbitzua Udalak izendatutako eraikin aretoan aretoan eramango da aurrera.

— Evitar las consecuencias que pueda suponer el aislamiento.

— Prevenir los síntomas de depresión y ansiedad.

— Intensificar la conexión con la actualidad y la realidad.

— Reforzar y vivir de forma positiva el tiempo libre.

— Trabajar la relación entre actividad física y salud.

— Fortalecer la atención y la memoria.

— Aumentar la comunicación y reforzar la aportación de opiniones.

— Aumentar la creatividad mediante diversas actividades.

— Convertirse en agente activo en las actividades comunitarias del municipio.

— Participar en las actividades comunitarias del municipio.

— Aumentar las relaciones intergeneracionales.

* Objetivos específicos transversales.

Para la familia.

Ofrecer ayuda social y asistencial a las familias que mantengan en su entorno a las personas que se citan en este reglamento.

*5. Población destinataria.*

— Personas mayores de 65 años en riesgo o situación de dependencia (Grado I, que hayan obtenido una puntuación en el BVD entre 25 y 39 puntos).

— Empadronadas en Usurbil.

— Cuando el plan de atención personalizada de la persona en cuestión determine que el servicio de atención diurna responde a sus necesidades, siempre con la aprobación de los servicios sociales.

Situaciones de excepción.

— Personas que sin tener reconocida la dependencia se encuentren en situación de debilidad, vulnerabilidad o soledad.

— Otras situaciones de excepción que acuerden los servicios sociales del Ayuntamiento de Usurbil, tras analizar y valorar los casos.

*6. Requisitos para acceder al servicio.*

Además de los requisitos administrativos señalados en el apartado anterior (grado I de dependencia, mayor de 65 años, empadronamiento), también se tendrán en cuenta los siguientes requisitos de necesidad:

— Requerir un apoyo de baja intensidad para la cobertura de las necesidades atendidas por la modalidad de servicio de que se trate en cada caso.

— No rechazar el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad infecto-contagiosa y/o enfermedad mental.

— No padecer trastornos de conducta y/o presentar comportamientos que puedan perturbar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o para las y los profesionales.

— No precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias del servicio.

*7. Oferta del servicio. Prestación y características.*

El Ayuntamiento de Usurbil ofrecerá el servicio de conformidad con lo establecido en la Ley 12/2008 de servicios sociales y en el Decreto 185/2015.

— El servicio se desarrollará en el local que determine el Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2017-08427

— Zerbitzua hiru orduko iraupenarekin goizez emango da, astelehenetik ostiralera.

— Zerbitzuak urtero aurkeztuko den egutegia izango du.

— Talde bakoitzean gehienez 12 pertsona izango dira. Taldea osatzeko gutxienez sei lagun izan beharko dira.

— Gutxienez hezitzaile-dinamizatzaile bat egongo da taldean.

— Gizarte zerbitzuek beretzat gordetzen dute ordutegian eta egutegian aldaketak egiteko eskubidea beti ere behar denari jakinaraziz.

* Zerbitzuaren prestazioak:

Gizarte-zerbitzuenak:

— Informazioa.

— Jarraipen-balioespena.

— Gizarte eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea; trebetasunen garapena (eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko jarduerak eta ariketa sinpleak; hezitzailea, aisia, hezkuntza eta kultura jarduerak.

— Lagun egite soziala.

— Garraioa, egungo garraio publikoarekin beteko da.

Osagarriak:

— Higiene pertsonala: Zerbitzu osagarri honen beharra somatzen denean, Usurbilgo Udalak pertsonaren etxebizitzan etxez-etxeko zerbitzuaren bitartez eskaintzea aurreikusten du.

Bestelako ezaugarriak.

Gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko esku hartzeak dituen ezaugarriak izango ditu.

Zerbitzuak eremu kognitiboa, fisikoa, harremanak, gizarteratzea, aisialdia landuko ditu metodologi aktibo eta parte-hartzailearen bitartez adinekoen gaitasunak estimulatzeko. Adib. Ariketa fisikoa, jolasak, memoria lantzeko ariketak, herriko ekintza komunitarioetan parte hartu, kultur jarduerak, esku-lanak.

Esku hartze hauek norbanakoak (pertsona bakoitzak dituen behar eta egoerak kontuan hartuko dira), taldekoak (elkarren arteko harremanak sustatzea bilatuko da, bakardade egoerak ekiditen laguntzeko) eta komunitatean landuko dira (pertsonak bere komunitateari egiten dion ekarpena eta komunitateak pertsonari egiten diona oso baliotsua den horretan landu behar dela uste da). Hiru aldagaiak ezinbestekoak dira: Pertsona, taldea eta gure herria Usurbil.

*8. Erabiltzaileak egin behar duen diru ekarpena.*

— Zerbitzuaren erabiltzaileak diru ekarpen bat egin beharko du hilero zerbitzuan parte hartzeagatik. Zenbatekoa eguneko arretan parte hartzea onartzean jasotzen duen ebazpenean jasoko da gizarte-zerbitzuek baloratu ondoren.

— Ekarpena urtean 11 hilabetetan egingo da (abuztuan ez) zerbitzua ez delako hilabete horretan eskainiko. Urte osoan eskainiz gero 12 hilabetez ordainduko litzateke.

— Erabiltzaileak ezarritako kuota ordainduko du, nahiz eta saio guztietara ez joan.

— Ekarpena ordaintzeko betebeharrak zerbitzuan baja emateko erabakia ebatzi bitartean iraungo du.

— Ahalmen ekonomikoa erabiltzailearen diru sarrerek mugatuko dute urteko diru sarrera garbiak aintzat hartuta.

— El servicio se prestará por las mañanas, durante tres horas, de lunes a viernes.

— El servicio contará con un calendario que se elaborará todos los años.

— En cada grupo habrá un máximo de 12 personas. Serán necesarias un mínimo de seis personas para conformar un grupo.

— Cada grupo contará como mínimo con una persona educadora-dinamizadora.

— Los servicios sociales se reservan el derecho a realizar cambios en el horario y calendario, comunicándolos a quien corresponda.

* Prestaciones del servicio:

De Servicios Sociales:

— Información.

— Valoración de seguimiento.

— Intervención socioeducativa y psicosocial: Intervención estimulativa o rehabilitadora: desarrollo de habilidades, actividades y ejercicios sencillos de estimulación de capacidades para realizar actividades básicas de la vida diaria; intervención educativa: ocio, actividades educativo-culturales.

— Acompañamiento social.

— Transporte, se prestará por medio del transporte público.

Prestaciones complementarias:

— Higiene personal: Cuando se aprecie la necesidad de esta prestación complementaria, el Ayuntamiento de Usurbil prevé ofrecerla en la propia vivienda a través del servicio de ayuda a domicilio.

Otras características.

Tendrá las mismas características que la intervención socioeducativa y psicosocial.

El servicio abordará el ámbito cognitivo, físico, las relaciones, la socialización y el tiempo libre, a través de una metodología activa y participativa, para estimular las capacidades de las personas mayores. Por ejemplo: Actividad física, juegos, ejercicios para trabajar la memoria, participación en actividades comunitarias del municipio, actividades culturales, manualidades.

Estas intervenciones se trabajarán de forma individual (se tendrán en cuenta las necesidades y situaciones de cada persona), en grupo (se buscará promover las relaciones mutuas, para ayudar a evitar las situaciones de soledad) y en la propia comunidad (hay que insistir en la importancia que tiene la aportación que las personas hacen a su comunidad y la que la comunidad hace a las personas). Son necesarias las tres variables: La persona, el grupo y nuestro municipio Usurbil.

*8. Aportación económica de la persona usuaria.*

— Las personas usuarias del servicio deberán hacer una aportación económica mensual por participar en el mismo. El importe de la aportación se indicará en la resolución que reciba la persona usuaria para comunicarle su admisión en el servicio de atención diurna, previa valoración de los servicios sociales.

— Se realizarán 11 pagos al año, en agosto no se hará ningún pago porque ese mes no se presta el servicio. En caso de que se prestara el servicio todo el año, se abonaría durante 12 meses.

— La persona usuaria abonará la cuota establecida, aunque no acuda a todas las sesiones.

— La obligación del pago estará vigente hasta que se resuelva la baja en el servicio.

— Los ingresos de la persona usuaria determinarán su capacidad económica, atendiendo a sus ingresos netos anuales.

EK\CV GAO-I-2017-08427

— Zerbitzuan alta edo baja hilabeteak osorik kobratuko dira.

Erabiltzaileak eguneko egingo duen ekarpena indarrean dauden ordenantza fiskaletan jasotakoaren arabera egingo du.

9. *Erabiltzaileen betebeharrak:*

— Dagokion diru ekarpena ordaintzea. (Aurreko atalean jasotakoaren arabera).

— Zerbitzuko jardueretara erregulartasunez joatea eta, ez joatekotan, arduradunari saiora edo saioetara joango ez dela jakinaraztea. Eta, ahal bada, ausentziak zenbat iraungo duen jakinaraztea.

— Zerbitzuko barne-arautegian jasotakoa betetzea.

— Ausentzialdiak, zerbitzuan ezarritako oporraldian izan ezik, ez du hamabost egun baino gehiago iraungo. Ospitaleratzealdiak salbuespen bezala kontuan hartuko dira.

10. *Usurbilgo udalaren betebeharrak.*

— Zerbitzua aurrera eramateko behar diren giza baliabide eta baliabide materialak badaudela bermatzea.

— Udalerrian zerbitzu honi buruz dauden beharrak antzematea.

— Erabiltzailearen profila zehaztea.

— Eskaria jaso, baloratu eta eskaerak erabakitzeko bideratzea.

— Erabiltzaileen ekarpena ekonomikorako irizpideak prestatu eta bakoitzarena erabakitzea.

— Zerbitzua eta gainerako prestazio eta bitartekoak koordinatzea.

— Erantzunik jaso ez duen eskaerari buruzko informazioa jasotzea.

— Zerbitzua martxan jartzeko eta funtzionamendurako behar den materiala erostea.

— Zerbitzuaren jarraipena eta ebaluaketa egitea.

11. *Zerbitzuaren izapide prozedura.*

Prozedura pertsonak gizarte-zerbitzuetan egiten duen eskaerarekin hasiko da. Gizarte-zerbitzuetan gizarte-langileak zerbitzuaren berri emango dio (ezaugarriak, baldintzak, onurak, zailtasunak, epeak...).

Bertan, eskaera eredu normalizatua azalduko zaio pertsonari. Horrekin batera zerrendatzen den dokumentazioa ekarri beharko da:

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

— Nortasun agiria.

— Famili-liburua, edo bikote diren agiria.

— Errolda agiria. Bizikidetza agiria.

— Mendekotasun balorazioa.

— Mendekotasuna baloratua ez dagoen egoeratan, osasun arloak bideratutako orientazio txostena (osasun fisiko edota psikologikoaren berri jasotzen duena).

— Kapital higigarri nahiz higiezinaren etekin garbiak.

— Bizikidetza unitatearen diru-sarrerak. Modu honetara hartuko dira kontuan.

Erabiltzaileak egin beharreko ekarpen ekonomikoa kalkulatu aurretik, elkarbizitza unitatearen ahalmen ekonomikoa zehaztuko da. Horretarako, honela osatuko da elkarbizitzako unitatea:

Adinekoak direnean, elkarbizitzako unitatea osatzen dute eskaera egiten duenak eta haren:

— En caso de alta o baja en el servicio, se abonará el mes completo.

La aportación diaria de la persona usuaria se corresponderá con lo establecido en las ordenanzas fiscales en vigor.

9. *Obligaciones de las personas usuarias:*

— Abonar la aportación correspondiente (De acuerdo con lo establecido en el apartado anterior).

— Acudir regularmente a las actividades del servicio y, en caso de no acudir, comunicarlo a la persona responsable. Y, en la medida de lo posible, informar sobre la duración de la ausencia.

— Cumplir con lo establecido en el reglamento interno del servicio.

— Las ausencias no podrán prolongarse más de quince días, salvo en el período vacacional establecido en el servicio. Los períodos de hospitalización se considerarán como casos de excepción.

10. *Obligaciones del ayuntamiento de Usurbil.*

— Garantizar los recursos humanos y medios materiales necesarios para prestar el servicio.

— Detectar las necesidades existentes en el municipio con respecto a este servicio.

— Especificar el perfil de la persona usuaria.

— Recoger las solicitudes, valorarlas y tramitarlas para su resolución.

— Establecer los criterios para la aportación económica de las personas usuarias y determinar la correspondiente a cada una de ellas.

— Coordinar el servicio y el resto de prestaciones y medios.

— Recabar información sobre las solicitudes que no han recibido respuesta.

— Adquirir el material necesario para la puesta en marcha y funcionamiento del servicio.

— Realizar el seguimiento y evaluación del servicio.

11. *Procedimiento de tramitación del servicio.*

El procedimiento se iniciará con la presentación de la solicitud en los servicios sociales. La trabajadora social informará a la persona solicitante sobre el servicio (características, condiciones, beneficios, dificultades, plazos...).

Se le facilitará el impreso de solicitud normalizado. La persona solicitante deberá presentar el impreso, cumplimentado, junto con la documentación que se indica:

Documentación a presentar junto con la solicitud:

— Documento nacional de identidad.

— Libro de familia o documento acreditativo de la condición de pareja.

— Certificado de empadronamiento. Certificado de convivencia.

— Valoración de dependencia.

— En caso de carecer de la valoración de dependencia, informe de orientación elaborado por el área de sanidad, informando de su salud física o psicológica.

— Rendimientos netos del capital mueble e inmueble.

— Ingresos de la unidad de convivencia. Esos datos se tendrán en cuenta de la siguiente manera.

Antes de calcular la aportación económica a realizar por la persona usuaria, se determinará la capacidad económica de la unidad de convivencia. A tal efecto, la unidad de convivencia estará compuesta de la siguiente forma:

En el caso de personas mayores, constituirán la unidad de convivencia la persona que presenta la solicitud y su:

EK\CV GAO-I-2017-08427

— Ezkontideak, izatezko bikoteak eta bikote direnak.

— Etxean bizi diren 30 urtetik beherako seme-alabek, ekonomikoki mendekoak badira.

— 30 urte edo gehiagoko seme-alabek, judizialki ezgaituta daudenean edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa aitortu zaienean, eskatzailearekin batera bizi badira eta ekonomikoki mendekoak badira.

Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak eta 40/2015eko sektore publiko erregimen juridikoaren legean jasotakoari baldintzatua dago dokumentazioa aurkeztea.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaren arabera, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

Eskaera osatua dagoenean, gizarte zerbitzuek dokumentazioa eta egoera aztertuko dute. Gizarte-zerbitzuetako teknikariak eskariak ebaluatu ondoren, txostena egingo du, bertan eskatzaileak baldintzak betetzen dituen ala ez adieraziz. Proposamena aldekoa denean, interesatuak zerbitzuarengatik ordaindu beharko duen tasa jasoko da.

Azkenik, proposamena dagokion organoari bideratuko zaio; honek txostena kontuan hartuta behin betiko ebazpena eman dezan. Honen berri interesatuari jakinaraziko zaio.

*12. Itxaron zerrenda.*

Aurkeztutako behar guztiei erantzuteko adinako plaza kopururik ez dagoelako eskaera batzuk erantzunik gabe geratuko balira, itxaron zerrenda bat osatuko da.

Itxaron zerrenda osatzeko aldagai hauek izango dira kontuan: Pertsona bakarrik bizi den, famili babesa, zerbitzuaren zain daraman denbora, zaintzailearen karga, etxean dituen laguntza formal eta informalak.

*13. Zerbitzuko erabiltzaile izateari uztea.*

— Borondatezko baja.

— Zerbitzua arautzen duten baldintzak betetzeari uzten badio.

— Zerbitzuaren egunerokotasunean ari den profesionalak erabiltzailea zerbitzuan jarraitzeko ikusten ez duenean. (txosten batean jasoko da eta gizarte-zerbitzuetako teknikariekin baloratuko da).

— Zerbitzuan sartu zenetik mendekotasun egoera aldatu dela baloratzen denean, eta beste zerbitzu bat egokiagoa dela ikusten denean.

— Heriotza.

— -...

*14. Zerbitzua ukatzea.*

Zerbitzuaren prestazioa ukatu ahal izango da ondorengo arrazoietako batengatik:

— Eskatutako baldintzak betetzen ez direlako.

— Behar bezala oinarritutako beste arrazoirengatik.

*15. Finantzaketa.*

Zerbitzuaren urteko finantzaketa jarraian adierazten diren iturrien bidez egingo da:

— Gizarte-zerbitzuen funtsa hala dagokionean.

— Udalaren ekarpena.

— Onuradunek egiten duten ekarpena.

— Cónyuge, pareja de hecho o pareja.

— Hijos e hijas menores de 30 años que convivan en el domicilio familiar y sean económicamente dependientes.

— Hijos e hijas mayores de 30 años incapacitados judicialmente o que tengan reconocida una discapacidad del 65 % o superior, siempre que convivan con la persona solicitante y sean dependientes económicamente.

La presentación de la documentación está condicionada a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En caso de que la documentación presentada esté incompleta o no se cumpla alguno de los requisitos de las bases, se concederá a la persona interesada un plazo de diez días hábiles para que subsane los posibles errores y aporte la documentación correspondiente. En caso contrario, de conformidad con el artículo 68.1 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se le informará que será dado por desistido en la solicitud, tras dictar la resolución correspondiente tal como se establece en el artículo 21.

Una vez cumplimentada la solicitud, los servicios sociales analizarán la documentación y la situación. Tras analizar las solicitudes, el personal técnico de los servicios sociales elaborarán un informe, en el que indicarán si la persona solicitante cumple o no los requisitos. Si la propuesta es favorable, se determinará la tasa que debe abonar la persona interesada por el servicio.

Finalmente, se elevará la propuesta al órgano correspondiente, para que emita la resolución definitiva atendiendo al informe. Se informará de todo ello a la persona interesada.

*12. Lista de espera.*

En caso de que algunas solicitudes queden sin respuesta por falta de plazas para hacer frente a todas las necesidades planteadas, se elaborará una lista de espera.

Para elaborar la lista de espera se tendrán en cuenta las siguientes variables: Si la persona interesada vive sola, el apoyo familiar, el tiempo de espera para acceder al servicio, las ayudas formales e informales con las que cuenta en casa.

*13. Renuncia al servicio.*

— Baja voluntaria.

— Cuando deje de cumplir los requisitos que rigen el servicio.

— Cuando el personal encargado de prestar el servicio observe que la persona usuaria no está en condiciones de seguir en el servicio. (Se recogerá en un informe, y se valorará con el personal técnico de los servicios sociales).

— Cuando se valore que la situación de dependencia ha variado desde que entró en el servicio, y se consideré más adecuado otro servicio.

— Por fallecimiento.

— -...

*14. Denegación del servicio.*

Se podrá denegar la prestación del servicio por alguna de las siguientes razones:

— Incumplimiento de alguno de los requisitos establecidos.

— Otras razones debidamente fundamentadas.

*15. Financiación.*

La financiación anual del servicio se realizará a través de las siguientes fuentes:

— El fondo de los servicios sociales, cuando corresponda.

— Aportación municipal.

— Aportación de las personas beneficiarias.

EK\CV GAO-I-2017-08427